

GALBAHEA

- **Xabi Solano:** “Nire burua trikitixarekiko zorretan sentitzen nuen. Txikitatik beti jo izan dut trikitixa, diskoetan ere beti grabatu izan dut piezaren bat soinu eta pandero hutsean baina, sekula ez nuen estilo horretako disko oso bat atera eta zorretan sentitzen nintzen. Beti beste instrumentuz inguratuta egon izan naiz eta oraingo honetan ez; trikitixa eta pandero gordinean daude hainbat kanta. Nik uste, Jon Marik eta biok kendu dugula zor hori”. Esne Zopak proiektuaren harira, **Infozazpi** irratiko *5etako diligentzia* saioan urtarrilaren 14an esana. Elkarriketa osorik entzuteko: www.infozazpi.com.

- **Ines Osinaga:** “Guk jarrera bera izaten dugu gaztetxe batean jo dugunean edo lbarretxe lehendakari zela bere aurrean kantatu genuenean. Ez dugu gure filosofia aldatu publiko ezberdin baten aurrean jo ahal izateko. Beti egon gara prest edozein lekutan jotzeko eta ez dugu inolako aterik itxi. Mezu bat dugu zabaltzeko, eta zenbat eta ikusle anitzagoa aurrean, orduan eta hobeto. Mikrofono batek duen balioa izugarria da eta hori aprobetxatu behar dugu. Aurreiritzi eta konplexu gehienak gure baitan daude, eta eskema horiek apurtzea ezinbestekoa da”.

(Gara, 2010-01-10)

- **Kepa Baraiazarra,** soinu konpontzailea: “Victor Larrinagak neri kontatua da, gerra garaian, abioia non jausten zan, hara joaten zirela eurak arrapatadan aluminioa harrapatzen. Aluminio zatiak, lengueten plakak egiteko. Aluminioa hartun eta tranbiari azpian ipini, laminatuko. Pasada bat... bi pasada... *laminación de precisión*”. www.trikimailua.com-en **Hauspo Kontari** atalean esana.

ZESUMA

KORRONTZIK EGIN DU IBILALDIRAKO KANTA

Marigoran Kikunbera lelopean maiatzaren 30ean Bermeon ospatuko den Ibilaldirako kantua egin du Korrontzi taldeak. Jose Muruaga Bermeoko Elizalde ikastolako irakasleak idatzi du letra, eta Korrontzi taldeak ipini dio musika. Bideoklipa, berriz, Jabi Elortegik zuzendu du. Otsailaren 27an aurkeztu zituzten biak Bermeoko Artza frontoian.

Bestalde, Agus Barandiaran soinu-jolearen taldeak, aipamen berezia jaso du “el rincón de jarramplas” folk web gunean. Iaz hainbat herrialde eta folk jaialditan jo ondoren, Estatuko zuzeneko onenaren sarirako izendatu zuten. Folk zaleen botoei esker, bigarren egin du aipatutako sailean.

AISTERRAZUKO ERROMERIA, BI ERREPIDEAN SAIOAN

ETB 1eko Bi errepidean saioak dantzaren inguruko erreportajea egin du: Aisterrazuko erromeria eta Eneko Balerdi dantzari profesional aiarra elkartu ditu ordu erdiko saioan. Aiako San Pedro bailaran dagoen Aisterrazuko erromeria da asteroko ohiturari eusten dion bakarrenetakoa eta, jakina denez, trikiti-plaza kuttunenetakoa. Erreportajea ikusgai dago sarean: www.eitb.com/telebista helbidean, bi-deon atalean.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteen Boletina

ALTZA PORRU!

2010eko martxo / 36.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

AZPEITIAREN 700. URTEURRENA, SAN JOSETAKO TRIKITI JAIALDIAREN ARDATZ

San Jose eguna gerturatzearekin batera, trikiti zaleen urteroko hitzordua dugu Azpeitian: San Joseetako Trikiti Jaialdia. Martxoaren 14an, igandez, ospatuko da, ohi bezala, Izarraitz Pilotalekuan.

700 urte betetzen dira aurten Azpeitiak herri-gutuna jaso zuenetik eta Udalarekin batera, **urteurrenari lotutako jaialdia** prestatu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartek. **Herriaren historiari errepasoa** egingo diote trikitilariak aurtengo jaialdian.

Trikitixa nagusi izanda ere, Azpeitiaren bilakaera azalduko duten **pasarteak eta argazkiak** ere eskainiko dituzte muntaia berezi batean. Azpeitiaren 700. urteurrena piezaz eta kantuz jantziko da.

Azpeitian izan diren soinu-jole ezagunen oinordekoekin batera, herriko trikitilari harrobia entzuteko aukera izango da taula gainean.

Honokoak izango dira partaideak:

- Auntxatarrak: Iñaki Aranaga eta Amalur Aranaga / Axier Olaizola eta Iñaki Aranaga
- Azpeitiko gitarra taldea, Iban eta Lierni trikitilariak
- Otolatarrak: Lide eta Lur
- Sahatseta, Egurrola, Berastegi eta Etxeberritxo
- Barrenola lehengusuak
- Juan de Antxieta Musika Eskolako eta Ikasberriko trikitixa ikasleak

NON: Azpeitiko Izarraitz Pilotalekuan

NOIZ: Martxoaren 14an, igandez, arratsaldeko 17:30tan

SARRERA: 12 euroan

SAN JOSETAKO TRIKITI JAIALDIA 2010

PARTAIDEAK

Auntxatarrak: Iñaki, Amalur eta Aroia Aranaga, Axier Olaizola eta Iñaki Aranaga

Azpeitiko Gitarra Taldea, Iban eta Lierni Trikitilariak

Otolatarrak: Lide eta Lur

Sahatseta, Egurrola, Berastegi eta Etxeberritxo

Barrenola Lehengusuak

Juan De Antxieta Musika Eskolako eta Ikasberriko Trikiti Ikasleak

AZPEITIKO 700. URTEURRENEKO JAIALDI BEREZIA

Lekua: **Azpeitiko Izarraitz pilotalekua**

Eguna eta ordua: **Martxoak 14. 17:30etan** igandea

Sarreraren prezioa 12 €

LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEAK



AURTENGO EGITASMOAK ONARTU DITU BATZAR NAGUSIAK



Azken urteetako lan-ildoari segika, proiektu nagusiei eustez gain, **hiru nobedade** azpimarra litezke Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak aurtan dituen egitasmoen artean: **Tapiatarren biografia** bilduko duen liburua, **pieza berriekin osatutako diskoa** eta **Trikitixa Eguna**.

Hona hemen, joan den otsailaren 27an, Aiako Kultur Etxean ospatutako Batzar Nagusian 2010erako onartutako egitasmoak:

- **Trikimailua:** Joseba Tapiak zenbait partituren moldaketak egin ditu bi ahotsetara eta Jon Ostolazak EITBk antolatzen zituen txapelketatako hainbat pieza transkribatu ditu. Guzti hau www.trikimailua.com helbidean zintzilikatuko da urte bukaera baino lehen.
- **Altzaporr:** Maiztasunari eutsita, aurtan beste lau ale kaleratuko dira.
- **Irakasleen lan taldea:** Trikitixa Eguna eta partiturak izango ditu ardatz.
- **San Josetako Trikiti Jaialdia:** martxoaren 14an ospatuko da Azpeitiaren 700. urteurrena ardatz hartuta.
- **Faborez:** bildumaren laugarren lana kaleratuko du aurtan Elkarteak. Aurrekoen formatuari eutsita, lau trikiti bikotek bosna pieza grabatuko dituzte. Partaideak:
 - Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo
 - Ander eta Aintzane Agirrebeña
 - Lutxurdio eta Aitziber Otegi
 - Ansorregi eta Larrañaga
- **Aurkezpen erromeria:** Bergaran egingo da aurtengo Faborez diskaren aurkezpena.
- **Soinuaren liburutegia:** Eleuterio eta Juanito Tapiaren biografia bilduko du bildumako 8. atalak. Xabi Borda ari da idazten.

- **Pieza berrien diskoa** grabatuko dute honoko trikitilariok:
 - Eburne Iturbe
 - Maixa Lizarribar
 - Izer
 - Urtzi Enrikez
 - Kristina Solano

- **Inpernuko Poza VIII jardunaldiak:** Trikitixaren inguruan hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko helburuz, aurtan, jardunaldien zortzigarren edizioa ospatuko da. Gaia erabakitzeke dago. Formatuari eutsiko zaio: hitzaldi, mahai inguru eta saio praktikoak uztartuko dira. Donostian izango dira jardunaldiak irailaren bigarren astean; Euskal Jaien egitarauaren barruan.
- **Trikitixa Eguna:** Azken urteetan ospatu gabea den Trikitixa Eguna antolatuko da aurtan. Durango eta lurretan izango da seguruenera, udazkenean. Data posiblea: Urriaren 30ean.
- **Nazioarteko Trikitixa Jaialdia:** Aurtan tokiz aldatzeko asmoa dago, momentuz Tolosako Leidorren egitea da proposamenetako bat, baina oraindik lotu gabe dago. Ardatza eta data ere zehazteko daude. Urteroko moduan, Euskal Herriko trikitilarietara batera atzerititik etorritakoak ikusiko ditugu taula gainean.

- **Durangoko Azokan** postua izango du Elkarteak urteroko gisan eta ordurako 2011ko egutegia prest izango da.
- **Aholkularitza eta laguntza zerbitzua:** Atal berri bezala, trikitilarietara beraiek diskoak ekoiztu nahi dituztenei aholkularitza eta laguntza zerbitzua jarri nahi diegu eskura.

Diru kontuei dagokienez, 130.000 euro ingurukoa izango da 2010erako aurrekontua.

Zuzendaritzan aldaketa izan da idazkari postuan: Maider Jauregi izango da aurtan idazkari, Agurtzane Aizpururen ondorengo.

Disko berriak

ZE ESATEK!

Ska, punk edota rock doinu alaiak dira. “Trikitixak pisu handia du, festa-giro ukitua dute kantuek eta itsaskorrak dira. Horixe da *Ze esatek!*-en errezeta”. Xabi Arakama soinu-joleak hala deskribatu digu bere talde berrienaren aurreneko diskoa. 2009ko urtarilean eman zuten estreinako kontzertua eta, urtebeteko tartean, kalean da dagoeneko 13 kantu berri biltzen dituen lana. Otsailaren 27an aurkeztu zuten diskoa Donostiako DOKAn.

Guztira 10 musikarik ostutzen dute taldea. The Txortains, Nuke, Skunk edota Harlax taldeetan aritutako musikariak bildu ditu Xabi Arakamak: bateria, bi gitarra, baxua, tronpeta, tronboia, saxoa, txalaparta eta trikitixa, bi ahots nagusirekin batera. Iaz 50 emanaldi eskainita, Baga Biga diskoetxearekin ateratu dute taldearen izena daraman lana: *Ze esatek!*



BUNPADA SOUND: ANITZAK HITZAK

Etorkinek osatutako Anitzak ekimenaren laguntzarekin, *Euskal Herria Anitzak Kolektiboa* diskoa kaleratu du Bunpada Sound taldeak. Asier Ercilla soinu-joleak David Nanclares eta Endika Lahaine ditu bidelagun proiektu honetan. Hip-hop oinarrien gainean, trikitixa tradizionala, rap doinuak, rocka, reggaea, flamenkoa, ballenatoa... zernahi musika estilo uztartzen ditu diskoak. “Munduan zehar bidaiatzeko” lana dela diote taldekideek.

Kantuak kultur-arteko bilgune izateko asmoz sortu da taldea; euskara eta trikitixa kanpoko musika eta hitzekin elkartzeko asmoarekin. Bat-bateko sormen lanean, 10 kantu jaso dituzte diskoan. Zuzeneko emanaldietan, proiektzioak, bertsolariak edota *break* dantzariak ikusteko aukera ere izango da. Hurrengo zita: martxoaren 27an, Usurbilen.



KEPA JUNKERA: HABANA SESSIONS

Fandango bildumako bigarren lana kalean du dagoeneko Kepa Junkerak. *Probença Sessions*-en ondoren, Kubako hiriburuan grabatutako lana da argitaratu berri duena: *Habana Sessions*. Aurrekoaren estiloari eutsi dio honetan ere; Kepa berak lehendik konposatutako piezen moldaketak jasotzen ditu diskoak. Oraingo honetan, trikiti eta piano hutsean.

Nabarmenezkoa da, luxuzko gonbidatua dakarrela Junkerak aldamenean: Rolando Luna, *Buena Vista Social Club*-eko piano jolea. Umiltasun eta gozotasunez jantzi ditu berak lehendik ezagunak diren 11 pieza. Trikitiaren eta pianoaren arteko konplizitatea uztartzen dituen disko pertsonala da Kepa Junkeraren azkena.

BIZENTE BARRENA TRIKITILARIA HIL DA

Bizente Barrena trikitilari bermeotarra joan den abenduaren 2an zendu zen. Txikitan aita irakatsi zion soina jotzen. Txirrindularitzan ere aritu zen Bizente Barrena eta, lasterketak amaitutakoan, soina soinean hartuta joaten zen erromerietara. Abenduan hil zen 80 urte zituela. Goian bego!

ZALDIBARKO AURRENEKO SOINU JOLEEN BILDUMA

Zaldibarko alkate izandako Balendin Lasuenek herriko aurreneko soinu joleen inguruan idatzi du bere azken historia koadernoan. Benito Urizarbarrena, Nikolas Elorriaga, Juan Areitio, Valerio eta Pedro Aldalur anaiak, Martzel Urizar, Tomas Jainaga “Eperra” eta Jose Mari Iriondo aipatzen ditu, besteak beste, Zaldibarko lehen soinu jole gisa. 1957ko irailaren 15ean ospatu zen aurreneko Zaldibarko Txapelketa. Egun handia izan zela nabarmentzen du Lasuenek, ordura arte, apenas entzuten baitzen soinu eta pandero bikoterik. Harrez gero, urtero ospatzen da Zaldibarren Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa.